# Bestelako Xedapenak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**4663**

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 24koa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, gai espezifikoetarako ikerketa-taldeak finkatzeko laguntzetarako deialdian erabiltzeko zenbateko osoa aldatzekoa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2009ko martxoaren 3ko Aginduaren (martxoaren 23ko EHAA) 2. artikuluari jarraituz, araututako laguntzak finantzatzeko 52.000 euro erabiliko dira.

Eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, adierazitako kopurua aldatu ahal izango da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste laguntza-programa batzuk bete ondoren agortu gabe geratu diren baliabide ekonomikoen arabera. Deialdia ebatzi aurretik egin beharko da. Horrela gertatuko balitz, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen Ebazpen baten bidez emango litzateke horren berri.

Diru-laguntzetarako deialdiaren ebazpenak berekin dakartzan behar ekonomikoak ikusita, eta 2009ko martxoaren 3ko Aginduko 2. artikulua bete dadin, hauxe.

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Diru-laguntzetarako deialdiko zenbateko osoa aldatzea, zenbateko horri 107.908 euro gehituz.

***2. artikulua.***– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko apean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 24a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**4663**

RESOLUCIÓN de 24 de junio de 2009, de la Viceconsejera de Administración y Servicios, por la que se modifica el importe global destinado a la convocatoria de ayudas para la consolidación de grupos de investigación en materias específicas.

La Orden de 3 de marzo de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación (BOPV de 23 de marzo), en su artículo 2, establece que a la financiación de las ayudas reguladas por dicha Orden se destina la cantidad de 52.000 euros.

Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y con carácter previo a la resolución de concesión de las mismas. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios.

Vistas las necesidades económicas que genera la resolución de la citada convocatoria de ayudas y en cumplimiento del ya mencionado artículo 2 de la Orden de 3 de marzo de 2009,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Modificar el importe económico total a que asciende la mencionada convocatoria de ayudas, ampliando en un total de 107.908 euros.

***Artículo 2.***– Contra la presente Resolución se podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de junio de 2009.

La Viceconsejera de Administración y Servicios,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.